

4. ELKARTEAK

Gure enpresak beste hainbat erakunderekin aliantzak egin ditu, produktua biztanle egokiari helarazteko. Esaterako, lore dendekin; izan ere, lore dendetara doazenak loreak erosteko helburua dutenez, gure produktuan interesa izan dezakete.

Horretaz gain, udaleei eskaera bat egingo diegu lorategi publikoetan gure produktua funtzionamenduan jartzeko eta biztanleentzat ikusgai egotea ahalbidetzeko.

Hori gutxi balitz, hainbat supermerkatu eta etxeko dendetan gure produktua salgai jarriko dugu, eguneroko bizitzako produktuak erostean jendeak aukera izateko gure produktua erosteko. Azkenean, gure produktua eguneroko bizitzan erabiltzeko prestatua baitago.